

ENPRESA-PROIEKTUETARAKO DIREN UDALAREN ESPAZIOAK OKUPATZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2018. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren arabera, enpresa-proiektuetarako diren udalaren espazioak erabiltzeko tasa exijitzen eta ezartzen du, zerga ordenantza honetan azaltzen den moduan.

II.- ZERGA EGITATEA

2. artikulua.- Enpresa-proiektuetarako diren udalaren espazioen bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia da tasaren zerga-egitatea. Tasa hau aplikatzeko ondorioetarako, enpresa-proiektu bat, denboraldi jakin baterako, deialdia egin ondoren, ostatzeko asmoz espazioak lagatzen direnean gertatuko da zerga-egitatea.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua.- Aipatutako espazioak, esleitu ondoren, erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aipatzen direnak, subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptupean.

IV.- ZERGA KUOTA

4. artikulua.- Zerga kuota ondoko tarifa aplikatzearen ondorio izango da:

TARIFA

Enpresa-proiektuetarako diren moduluak aldi baterako lagatzeagatik: 6,00 euro m²ko eta hilabeteko.

Kuotaren hainbanaketa ez da egokia izango hilabetetik beherako epeko okupazioengatik.

V.- SORTZAPENA.

5. artikulua.- Tasa sortzen da eta ordaintzeko betebeharra jaiotzen da bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia espazioen erabileraren bitartez hasten denean.

VI.- TASA KUDEATZEA ETA ORDAINTZEA

6. artikulua.- Kuotak hilerik likidatuko dira, eta kobratze agirian adierazten den epean ordaindu beharko dira. Tasa modu eraginkorrean kudeatzeko, Zerga Bilketatik ordainagirien helbideratzea erraztuko da.

VII.-AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2015eko otsailaren 24an onetsi zen. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean eta aldatzea erabaki arte jarraituko du indarrean.